

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2017.06.27**

Tolosako Udaletxean, 2017ko ekainaren 27an, iluntzeko 8etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Olatz Peon Ormazabal, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 27 de junio de 2017, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la Alcaldesa, Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:  
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa  
Nerea Letamendia Belloso  
Patxi Amantegui Zubiria  
Nuria Carbonell Miranda  
Iñigo Alonso Sarasibar  
Joseba Koldo Ormazabal Lopez  
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga  
Begoña Tolosa Mendia

Ibai Iriarte San Vicente  
Lore Agirre Zipitria  
Onintza Lasa Arteaga  
Igor Ezenarro Balda  
Maria Lasa Arruabarrena  
Pedro Manuel Etxabe Zabala  
Cristian Fernandez Susin

Ez bertaratutako zinegotzia:  
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez

Behin Behineko idazkaria:  
Karmele Contreras Goikoetxea

Kontuhartzailea:  
Ainhoa Molinos Zubiaurre

### **Eguneko gaia zerrenda**

### **Orden del día**

1. Ondorengo akta onartzea:  
2017ko maiatzaren 30eko Ohizko Osoko bilkurakoa.

1. Aprobación de la siguiente acta:  
Sesión ordinaria del 30 de mayo de 2017.

2. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea: 2017ko maiatzaren 2tik 31ra (2017/739-2017/977).
3. Tolosa Lantzen, S. A.ko Batzar Orokor Unibertsal funtzioetan:
  - Batzar eta Administrazio kontseiluko Idazkariaren kargu uztea eta izendapena berrestea.
  - 2016ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak onarpena.
4. Erretengibel, S.A.ko Batzar Orokor Unibertsal funtzioetan: Kontseilariaren kargu uzte eta izendapena onartzea.
5. Tolosa Lotzen, S. A.ko Batzar Orokor Unibertsal funtzioetan 2016ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuen onarpena.
6. Tolosako Udalak Gipuzkoako Lurralde Historikoko herritarren partaidetzarako erakunde arteko Espazioari atxikitzea
7. Ekintzaileen coworking-erako Oriaburu guneara arautuko duen ordenantza
8. Itxitako ekitaldiko fakturen onarpena.
9. Behin betiko izaeraz onartzea: Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren Aldaketa Puntuala, "28 Albiztur" esparruari dagokiona.
10. Ekainaren 28a, Gay, Lesbiana, Transexual, Bisexual, Intersexual eta Queer-en eskubideen nazioarteko eguna dela eta, adierazpen instituzionala.
11. Tolosako Batzokian egindako pintaketen harira Tolosako EAJ, EHBildu eta PSE-EE alderdien adierazpena.
12. Galderak eta eskaerak.
2. Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía: Del 2 al 31 de mayo de 2017 (2017/739-2017/977).
3. En funciones de Junta General Universal de Tolosa Lantzen, S.A.:
  - Ratificación del acuerdo de cese y nombramiento de secretario/a de la Junta y del Consejo de Administración.
  - Aprobación de las cuentas del ejercicio de 2016.
4. En funciones de Junta General Universal de Erretengibel, S.A. cese y nombramiento de consejero.
5. En funciones de Junta General Universal de Tolosa Lotzen, S.A. Aprobación de las cuentas del ejercicio de 2016.
6. Adhesión del Ayuntamiento de Tolosa al Espacio Interinstitucional de Participación Ciudadana del Territorio Histórico de Gipuzkoa.
7. Ordenanza reguladora del espacio coworking Oriaburu para el emprendizaje.
8. Aprobación de facturas del ejercicio cerrado.
9. Aprobación definitiva del Proyecto de Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa, referida al ámbito "28 Albiztur".
10. Declaración institucional con motivo del 28 de junio día internacional por los derechos de Lesbianas, Gays, Transexuales, Bisexuales, Intersexuales y Queers.
11. Declaración de EAJ, EHBildu y PSE-EE en relación a la pintadas realizadas en el Batzoki de Tolosa.
12. Ruegos y preguntas.

Gai zerrendatik kanpo:

- Adierazpen Instituzionala GARDEN

Fuera del orden del día:

- Declaración institucional en relación al

guraso elkartearen egindako eskaeraren harira.

escrito presentado por GARDEN guraso elkartearen.

Segidan, Lehendakariak batzarrari hasiera eman dio eta gai zerrendatik kanpo aurkeztu den berri eman du. Hori dela eta, eta gaiaren premiatasuna kontutan izanik, Udalbatzak, aho batez, erabaki du ondorengo gaia tratatzea:

- **Adierazpen Instituzionala GARDEN guraso elkartearen egindako eskaeraren harira.**
- **Declaración institucional en relación al escrito presentado por GARDEN guraso elkartearen.**

Idazkariak adierazpena irakurri du. Honela dio:

*“GARDEN guraso elkarteak zenbait seme-alaben epaiketen aurrean aurkeztu duen eskabidea oinarri hartuta, Tolosako Udalak ondorengo adierazi nahi du:*

- 1. Indarkeria adierazpenak ez dute inolako lekurik bizikidetzaren sustatu nahi duen gizarte demokratiko batean. Aldi berean, sistema demokratiko batek ideia eta proiektu oro defendatu eta aurrera eramateko bitartekoak eskaini behar ditu.*
- 2. Lehenik eta behin gazte hauen errugabetasun presuntzioaren balore juridikoa aplikatzea eskatzen dugu. Horrez gain, kontsideratzen dugu indarrean dauden arauak aplikatzerakoan, egungo egoera sozialera egokitu behar direla. Herri honek salbuespen egoera juridiko bat bizi izan du. Garaia da, egoera horiek iraganean utzi eta herritarron eskubide zibil eta politikoak bermatuak izan daitezen.*
- 3. Arauaren interpretazioa epaitua den kausaren neurrikoa izan behar da eta, era berean eskatzen diren zigorrak proportzionatuak izan behar dira, betiere, kontutan hartuz bake garaiko errealitatean murgildurik gaudela.*
- 4. Tolosako udalbatzak bizikidetzaren aldeko apustu garbia egin nahi du, gizarte eragile guztiekin batera, hori baita bidea geroari begirako gatazkak konpondu eta ekiditeko.”*

Bozketara jarri ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartu du Garden Guraso elkartearen egindako eskaeraren harirako adierazpen instituzionala.

-----

Partehartzeak:

... Cristian Fernandez Susin (PSE-EE): *“Bizikidetzaren eta normalizazio politikoaren alde lanean jarraituko dugu eta inolako indarkeri adierazpenak ez dute lekurik lan honetan. Alde guztietatik pausoak eman behar dira horrelako gauzak ez errepikatzeke. Adibidez aplikatu behar diren arauak gaur egungo egoera sozialari egokitzea eta salbuespen egoera*

*juridikoak behin betiko uztea. Horregatik adierazpen bat egingo dugu.”*

... Ibai Iriarte San Vicente: *Arratsalde on Guraso elkarteari. EHBildutik argi daukagu testu hau seguraski hemen gauden bakoitzak, bai guraso, bai PSE-EE, EAJ, baita guk ere, bakoitzak berea aurkeztuko zuela, horrela aurkeztu genuen gainera, baina testu honen alde egingo dugu guztiok, baina bakoitzak beste bat onartzea nahiago izango zuela. Aldi berean, argi daukagu adostasuna hori lortzeko egindako esfortzuak merezi izan duela eta zentzu horretan iruditzen zaigu eroso egon ahal izateko testu bat daukagula hemen mahai gainean eta denok malgutasunez jokatu dugula hori helburu izanda. Hau da, Tolosan momentu honetan zenbait gazte espetxeratu ahal izateko arriskuan daude. Gogoratu beharko genuke espetxeak reinsertiorako bitartekoa izan beharko luketela eta gazte hauek ez dute inongo reinsertzio arazorik. Gazte hauek erabat integratuak daude herrian, herriko dinamika sozio politikoetan aktiboak dira. Alde horretatik epaiketa honi ez diogu zentzurik ematen. Horregatik eta herri honetako beste gazte askok pairatu duten arrisku bera pairatzen dute gazte hauek gaur egun. Hau da, espetxean bukatzeko arriskua, beraien bizitza goitik behera aldatzeko arriskua, horrek suposatzen duen guztiarekin gazte hauetako gazte bakoitzarentzat eta beraien inguruarentzat, gurasoak, lagun eta senideak. Argi ikusten dugu herri honetan Euskal Herrian salbuespen egoera batzuk eman direla eta ematen jarraitzen direla, zentzurik ez daukatenak. Hau da, gertaera berak oso modu ezberdinean epaitzen dira Euskal Herrian eta Euskal Herrikan kanpora, legedia berdina izan arren eta hori erabat desproporzionatua eta injustoa da. Eskubide zibil eta politiko guztiak deusestatzen ditu bere horretan. Gure ustez, disidentzia da kriminalizatzen dena. Hau da, artaldetik ateratzen den horri, egurra, inor artaldetik atera ez dadin, eta sistema demokratiko batean testuak dion bezala lehenengo puntuan: sistema demokratiko batek ideia eta proiektu oro defendatu eta aurrera eramateko bitartekoak eskaini beharko lituzke eta ez hauek zanpatu. Horregatik pozten gara testu honetan gazteen aldeko mezua aho batez onartua izango dela eta gure babes osoa bai gazteei, baita zuei, gurasoei, azken finean zuek ahalbideratu duzuelako testu hau gaur ateratzea. Epaiketan emaitza bakarra joko dugu guk, EHBildutik, ontzat eta hau absoluzioa izango litzateke. Hasteko eta behin, bigarren puntuan esaten dugun bezala errugabetasun presuntzioan sinisten dugulako eta sinisten dugulako gazte hauek ezer ez dutela egin. Hori guztia dela, moztio honekin bat egingo dugu eta beraien askatasuna eskatuko dugu.”*

... Alkatea: *“Ongi etorriak Garden guraso taldekideei. Garden gurasoen elkarrekin Tolosako hainbat gazteek deitutako epaitegietako kasuen ondorioz osoko bilkura honetan parte hartzen dugun alderdi guztiek babestutako adierazpena onartzeko eskaera egin zuen eta eskaera horren emaitza da orain onartuko dugun adierazpena. Uste dut, baita ere, inportantea dela letra larri jarri behar dena eta balioan jarri behar dena lehenengo adostasuna lortu izana. Ikuspuntu ezberdinetatik azpimarra leku ezberdinetan jarriz ikuspuntu horren arabera eta adierazpena osatzeko garaian iritsi ezberdinak izanagatik ere denak errespetuz elkarri entzuteko gai izatea balion jarri behar dugu. Baita honekin atera bizikidetzako apustua argia egiten dugula. Indarkeria adierazpen guztiak gaitzetsiz, etortzen den lekutik etorrita ere, helburua edozein dela ere ezarketa inork ez duelako justifikatzen indarkeriaren erabilera. Tolosako herritarrak elkarrekin bizitzeko normaltasunerako bidea hartua dute. Indarkeria gaitzetsi eta bakea delako herriaren hautua elkarrekin eraiki behar dugu bakea. Eta baieztapen hori egiten dugu benetakotasunez, aitzakiarik gabe. Ez aldarrikapen edo nahi politiko baten aurrean ez delako eraginkorra baizik eta ez dagoelako ondo. Maxima prepolitiko bat da. Gehienbat eta inportantea da guretzat baita ere gazteei*

*irakasten horren barruan sartzea, herri honen etorkizuna diren heinean. Herri honek sufrimendu asko jasan izan ditu, zenbait kasu eta kausengatik memoria historikoaren lanketa egiten ari gara Euskal Herriko herri ezberdinetan bizikidetzak sustatzeko. Giza eskubideen hainbat urraketa izan dira eta iraganak erakutsi diezaguke nola aurrera egin edo beste era batera esanda nola ez dugun aurrera egingo. Hau da iraganaren balorazio kritikoa eginez eraiki dezakegu guztion artean etorkizuneko elkarbizitza. Beraz, Udal honek ez ditu indarkeri portaerak babestuko. Hori da egiteko daukagun baieztapen inportanteena eta maxima honekin ondorengo ere esan genezake: Legeak kontutan izan behar duela zein errealitatean murgilduta gauden. Legeak gizartearen errealitatera egokitu behar dira eta ez alderantziz. Eta epaitutako zigorrak ezin direla desproporzionatuak izan. Inportantea da esatea ere sistema demokratikoak badituela bere eskubideak baina ezin dituela betebeharrak ahaztu. Arauak denentzako direla berdinak, gazte, zahar, gizon zein emakume. Gehienbat giza-eskubideetaz hitz egiten dugunean edo bizikidetzak lantzeko arauak dagokionez. Egia dela baita ere ezohiko legeriak ezin duela bake egoera bat arautu. Egia den bezala ezohizko legedia zalantzan jarria izan dela onartua izan den une beretik. Bestalde, garrantzitsua dela bizikidetzaz hitz egiten badugu aniztasunaz hitz egitea, zorionez gizartea ez delako uniforme, iritziak asko eta anitzak direla eta beraien defentsarako ez dela oztoporik egon behar, ez legean, ezta ere kalean, intimidazioak ez duela lekurik eta elkarren errespetua izan behar duela bizikidetzak honen oinarria “.*

Bozketara pasa ondoren Garden guraso elkarteko ordezkariak hitza eman zaie. Parte hartzea espedientearen jasota dago, DVDan.

**1. Ondorengo akta onartzea:**  
**2017ko maiatzaren 30eko Ohizko**  
**Osoko bilkurakoa.**

**1. Aprobación de la siguiente acta:**  
**Sesión ordinaria del 30 de mayo de**  
**2017.**

Izenburuan aipatutako aktan honako zuzenketa egin ondoren aho batez, **onartu** da. Nerea Letamendia Belloso zinegotziaren partehartzean (11. puntuan) “*udarako*” hitza “*udazkenerako*” hitzagatik aldatzen da.

**2. Alkatetzako dekretu hauen berri**  
**ematea:**  
**2017ko maiatzaren 2tik 31ra (2017/739-**  
**2017/977).**

**2. Dar cuenta de los decretos emitidos**  
**por la alcaldía:**  
**Del 2 al 31 de mayo de 2017**  
**(2017/739-2017/977).**

Alkatetzak 2017ko maiatzaren 2tik 31ra bitartean (2017/739-2017/977) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

3. Tolosa Lantzen, S. A. ko Batzar Orokor Unibertsal funtzioetan:
- Batzar eta Administrazio kontseiluko Idazkariaren kargu uztea eta izendapena berrestea.
  - 2016ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak onarpena.
3. En funciones de Junta General Universal de Tolosa Lantzen, S.A.:
- Ratificación del acuerdo de cese y nombramiento de secretario/a de la Junta y del Consejo de Administración.
  - Aprobación de las cuentas del ejercicio de 2016.
- Batzar eta Administrazio kontseiluko Idazkariaren kargu uztea eta izendapena berrestea.

Tolosan Lantzen, S.A., sozietatea Junta Orokor Unibertsalaren funtzioetan eratu ondoren, 2017ko ekainaren 20an Administrazio Kontseiluak hartu zuen erabakiaren berri eman zaie:

*“...Txosten teknikoa aurkeztu du. Bertan Dio Tolosa Lantzen S.A. udal entitateko Estatutuen 17 eta 14. artikularen arabera Kontseiluak hartu behar duela Idazkaria kargua uzteko eta berria izendatzeko erabakia.*

*Horiek horrela, Kontseiluak, aho batez,*

#### **ERABAKI DU**

**Lehena:** *Jose Luis Unanue Ugalde Kontseiluko eta Batzar Nagusiko erakundearen idazkari lanetan kargua uztea.*

**Bigarrena:** *Karmele Contreras Goikoetxea Kontseiluko eta Batzar Nagusiko erakundearen Idazkaria izendatzea behin betiko udal idazkaria izendatu arte.*

**Hirugarrena:** *Olatz Peon Ormazabal Administrazio kontseiluko lehendakariari ahalmenak ematea akordioa eskritura publikoan jaso eta Merkataritza erregistroan erregistratzeko.”*

- 2016ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak: onarpena.

Tolosa Lantzen, S.A. sozietatea Junta Orokor Unibertsalaren funtzioetan eratu da:

Jarraian, Udalbatzak, aho batez,

#### **ERABAKI DU**

**Lehen.-** Onartzea aipatutako sozietateen 2016. ekitaldiko urteko kontuak, hala nola egoera balantzeak, galdu-irabazien kontu eta txostenak.

**Bigarren.-** Onartzea sozietateen emaitzen aplikazioa, agirietan agertzen diren eran.

**Hirugarren.-** Sozietateko administrazio kontseiluaren Lehendakaria ahalmentzea agiri guzti hauek merkataritza erregistroan aurkezteko.

**4. Erretengibel, S.A.ko Batzar Orokor Unibertsal funtzioetan:**

**Kontseilariaren kargu uzte eta izendapena onartzea.**

Erretengibel, S.A., sozietatea Junta Orokor Unibertsalaren funtzioetan eratu ondoren, Batzarkideei 2017ko maiatzaren 18an Administrazio Kontseiluak hartu zuen erabakiaren berri eman zaie.

Xabier Maiza Aizkorbe jaunak Erretengibeleko kontseiluko kideak, uko egin dio kontseilari izateari arrazoi pertsonalak direla eta.

Kontseilu kidea izandatu zen PSE-EEren taldearen proposamenari jarraituta. Izan ere, Sozietatearen estatutuak 16. artikuluan bermatzen dute Udaleko Bilkura Osoan parte hartzen duten talde politiko guztiek Erretengibeleko kontseiluan ordezkartza izatea.

Oraingoan, PSE-EE taldeak Cristian Fernandez Susin zinegotzia izendatzea proposatu du.

Beraz, aho batez,

**ERABAKI DUTE**

**Lehenik:** Xabier Mazia Aizkorbe, kontseilariaren dimisioa onartzea.

**Bigarrenik:** Cristian Fernandez Susin Erretengibeleko kontseilari izendatzea. Cristian Fernandez Susin zinegotziak onartu egin du izendapena.

**5. Tolosa Lotzen, S. A.ko Batzar Orokor Unibertsal funtzioetan 2016ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak onartzea.**

**5. En funciones de Junta General Universal de Tolosa Lotzen, S.A. Aprobación de las cuentas del ejercicio de 2016.**

Tolosa Lotzen, S.A., sozietatea Junta Orokor Unibertsalaren funtzioetan eratzen da:

Jarraian, Udaltzarak, aho batez,

## ERABAKI DU

**Lehen.-** Onartzea aipatutako sozietateen 2016. ekitaldiko urteko kontuak, hala nola egoera balantzeak, galdu-irabazien kontu eta txostenak.

**Bigarren.-** Onartzea sozietateen emaitzen aplikazioa, agiritan agertzen diren eran.

**Hirugarren.-** Sozietateko administrazio kontseiluaren Lehendakaria ahalmentzea agiri guzti hauek merkataritza erregistroan aurkezteko.

### **6. Tolosako Udalak Gipuzkoako Lurralde Historikoko herritarren partaidetzarako erakunde arteko Espazioari atxikitzea.**

### **6. Adhesión del Ayuntamiento de Tolosa al Espacio Interinstitucional de Participación Ciudadana del Territorio Histórico de Gipuzkoa.**

Gero eta konplexuagoa den gizarte batean, gakoa elkarlanean dago. Elkarlanak, batetik, gardentasuna, informazioa eta parte hartzea politika publikoaren parte bilakatzea eta, bestetik, herritarren eta botere publikoen arteko hartu-eman handiagoa eskatzen du.

Zentzu honetan, Tolosako Udalak, Tolosatzen prozesuaren baitan zabalduko bidetik Tolosako herritarren eguneroko beharrei eta herri bezala ditugun etorkizuneko beharrei modu eraginkor, parte hartzaile eta adostuan aurre egin nahi dien bezala, orain arte bezala eskualde, nahiz probintzi mailan ere gainontzeko botere publikoekin batera modu aktiboan jardun asmo du ere.

Botere publikoen arteko elkarlanari dagokionez, berriki Gipuzkoako Foru Aldundiak Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko espazio bat sortzeari buruzko Foru Dekretua onartu du, bere bigarren artikuluan zehazten duen moduan ondorengo helburuekin:

- a) Sare bat edo erakunde arteko topaketa espazio bat eratzea Lurralde Historikoko maila anitzeko gobernuen ikuspegitik, batik bat, foru gobernuaren eta tokiko gobernuen ikuspegitik, eta horren helburua herritarren partaidetzarako politikak sustatzea izango da, herritarren eta erakundeen arteko erlazioak indartu daitezen.
- b) Herritarren partaidetzaren arloko erakundeen esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko espazio bat ezartzea, alor horretako elkarrekiko ikaskuntzako erakunde-komunitatea eta hobekuntza instituzionala sustatuta.
- c) Laguntza eta lankidetzak teknikorako bideak hedatzea Espazioan dauden erakundeek betebeharrak arauemaileak egikaritzeko, araudiak eta ordenantzak onartzeko eta herritarren partaidetzarako metodologiak, prozesuak eta tresnak martxan jartzeko.



- d) Herritarren Partaidetzako alorrean Foru Aldundiaren diru laguntzen politika zehazten laguntzeko tresna izatea.
- e) Prestakuntza programak eta jardunaldi espezializatuak sustatzea, baldin eta zeharkako alor honetan eskuduntzak dituzten kargu publiko adierazgarrien eskumen instituzionalak indartzen badituzte eta herritarren partaidetzaren alorreko foru eta udal zuzendari eta teknikarien gaitasun profesionalak garatzen badituzte.

Udal honen nahia Espazio horren parte izatea da. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta gainontzeko udalerriekin batera elkarlanean jarduteko eta elkar aberasteko espazio aproposa dela uste duelako. Horregatik Osoko Batzarrari proposatzen zaio atxikimen adierazpen hau onartzea.

Halaber, Foru Dekretuak bere Hirugarren Xedapen Gehigarrian zehaztu moduan, atxikimen honek bere gain konpromiso hartzea eskatzen dio.

Proposamena aztertu eta Herritarrekiko Harremanak, Partaidetza eta Informazioaren Gizartea batzordeak 2017ko apirilaren 3an, jaulkitako diktamena kontutan hartuta, Udalbatzak, aho batez,

#### ERABAKI DU

**Lehenik:** Tolosako Udala Foru Dekretuak sortzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko Espazioari atxikitzea.

**Bigarren:**Foru Dekretuak bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren arabera zehaztutako konpromisoak beregain hartzea:

- a) Arlo politikoan nahiz teknikoan modu aktiboan parte hartzea Espazioko organo edo egituretan esleitutako pertsonen bitartez.
- b) Espazioaren funtzionamendua sustatzea, proposamenen eta ekimenen bitartez.
- c) Foru Aldundiak, tokiko erakundeen mesedetan, sustatuko dituen herritarren partaidetza arloko diru-laguntzen lerroei buruzko iritziak definitzeko eta zehazteko prozesuetan parte hartzea eta eztabaidatzea, betiere Espazioko organo edo egitura eskudunen bitartez.
- d) Proposatzea partaidetzarako programa zehatzak, prestakuntza programak, topaketak, mintegiak eta prestakuntzako beste hainbat jarduera, Espazioko organo edo egitura eskudunek eztabaidatu eta onartu ditzaten.
- e) Gida metodologikoak eta herritarren partaidetzarako onuragarriak izango diren beste edozein baliabide edo tresna proposatzea, bereziki partaidetzazko aurrekontuen ereduak eta estrategiak diseinatzea.
- f) Espazioan ezartzea partaidetza alorreko praktika onak, bertan parte hartuko duten

erakundeen ezagutza handitzeko eta herritarren partaidetzako foru, udal eta tokiko erakundeen politikak hobetzeko.

- g) Espazioaren aurrekontuak ezagutzea eta, behar bada, gai horren inguruan eztabaidatzea organo edo egitura eskudunen bitartez.
- h) Partaidetza alorrean Foru Aldundiak burutuko dituen laguntza tekniko eta lankidetzako prozesuetan udalei eta tokiko erakundeei laguntza ematea, arazoak edo gai irekiak behar bezala identifikatzeko, erregelamendu nahiz ordenantza-tipoak eta proposatutako gida metodologikoak sustatzeko, eta herritarren partaidetzako tokiko politikak hobetzera bideratutako Espazioaren beste edozein ekimen bultzatzeko.
- i) Espazioa dinamizatzea egungo egituren bidez, eta foro teknikoak koordinatzea, hala behar bada.

**Hirugarren:** Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzari erabaki honen berri ematea eta hitzarmena sinatzea.

-----

#### Partehartzeak:

... Joseba Ormazabal Lopez, Herritarrekiko Harremanak, Partaidetza eta Informazioaren Gizartea batzordeburua: *“Herritarren Partaidetzako erakundeen arteko espazio hau Foru Aldundiaren proiektu bat da. Foru Aldundiak ibilbide zabala darama. Badira bi legealdi partaidetza sustatzen dutela gizarte politikan. Bertan, formakuntza berezi batzuk eman ziren herritarrei, guk parte hartu genuen momentu horretan. Hurrengo agintaldian herritarrekin sarea sortu zuten eta hemengo proiektu hau jarraipen bat da bi berrikuntza nagusiekin: bat alderdien arteko adostasuna lortu da martxan jartzeko, funtzionamenduan. Bigarren berrikuntza Foru dekretu bat sortzea da, ofizialtasun bat emanez. Hurrengo urteetan partaidetzaren inguruan, partaidetza modu zabal batean gobernantzan hiru erronka izango ditugu nagusiki. Bat administrazioaren inguruan, bere funtzionamenduan txertatu behar ditu partaidetza prozesuak modu naturalean. Beste erronka legearena izango da. Udal legearekin pauso inportanteak ematen ari dira, baina, oraindik herri mailan zailtasunak badauzkagu, erabakitzeko prozesuak, kontsultak aurrera eramateko. Eta hirugarren erronka izango da teknologikoa. Azkeneko hamar urteetan internetekin eman ditugu horrelako salto inportanteak baina, hurrengo urteetan gehiago izango dira eta herri guztiok zailtasunak izango ditugu jarraitzeko gizarteak daraman abiadura horri. Nik uste dut guzti honetan, proiektu honetan, Tolosako Udalak egon beharra daukala. Bere garaian aitzindari izan zen Tolosa 2015 proiektuarekin, herri guztiarekin partaidetza prozesua gauzatu zuen, plan estrategiko bat abian jarri eta gainera berrikuntza bezala Agenda 21eko funtzionatzeko sistema zabaldu egin zuen, ez bakarrik ingurumeneko gaietan baizik eta udal osoko sailetara. Gaur egun, baita Tolosak darama nolabaiteko berrikuntza Tolosatzen proiektuarekin. Kasu honetan hamar urte pasa dira, urte horietan aldaketa asko izan dira, bai politikan, bai Administrazioan, eta Tolosan espreski egiten ari den aldaketa Agenda 21eko eredu hori berformulatzen eta Gobernantza kontzeptu horien prozedura zirkular horietara pasatzeko. Tolosak badauka asko eskaintzeko proiektu honetan eta bereziki asko jasotzeko. Beraz, proposamen ona da hemen partehartzea.”*

- ... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): *Alde bozkatuko dugu foro horren inguruan. Hala ere, zenbait ñabardura ere egin nahiko genituzke. Partaidetza inguruan badago hemen ibilbide bat. Foru dekretu honek jasotzen du neurri handi batean aurreko legealdian martxan jada jarrita zeuden zenbait espazio, sareei dagokionez, hau teknikoei formakuntzei dagokionez, sare antolaketa bai tekniko bai politikoei zegozkien lan mahai ezberdinak sortu eta martxan zeudelako. Adostasuna ez zen lortu oinarrizko printzipio berdinak adostea ez zelako lortu. Hau da, gehiago zen blokeo politiko bat irudikatu nahi zela beste ezer baino. Izan ere, jarraikotasun bat ematen bazaio aurreko legealdian egindakoari. kuriooa iruditzen zaigu zentzu horretan orain lortu izana eta lehen ez. Esan bezala guk bat egiten dugu foro honekin iruditzen zaigulako partaidetzaren inguruko hausnarketa hauetan sakoneko lan bat egin behar dela, Administrazioak asko dauka egokitzeko eta ikasteko. Zentzu horretan ohitura zaharrak aldatzea ez delako erreza eta horrelako espazioen bidez, gutxinaka-gutxinaka egokitzen joan behar duelako administrazioa garai berrietara. Garai berri hauek partehartzeagoak izan behar dute eta irekiagoak. Horregatik alde egongo gara baino badakit, dekretu hau adosteko garaian, eta pozten gara egindako zenbait ñabardura EHBilduko zenbait udalek egindakoak, Erretenteria-Orereta, Usurbil, kontutan izan direla. Zeintzuk, nagusiki edukiz betetzea. Guretzak oso inportantea da edukia, hau da, ez bakarrik logotipoa edo foru dekretu bat ateratzea. Zentzu horretan konpromisoa datorren aurrekontuetan foro honek partida bat edukitzea. Izan ere, 2015ean 342.0000 euroko partida bat zegoen bitartean dinamika hauen sustapenerako, 2016an 100.000 eurotara jeitsi zen eta 2017an, 80.000 eurotara. Iruditzen zaigu espazio hauek elikatzeke ezinbestekoa dela dirua, dirua formakuntzarako, dirua herriei horrelako prozesuak martxan jarri eta bideratzeko. Aipatu nahiko genuke aurreko legealdian Tolosan Larramendi auzoan eman zen soterramenduen inguruko auzo galdeketa dirulaguntza jaso zuela bide honetatik. Amarotzen egiten hasi zen fase guzti horrek ere laguntzak izan zituen bide honetatik. Gazte lokalen ordenantza egiteko garaian sortu zen prozesuak ere lerro hau izan zuen, Foru Aldundiak diruz lagundu zuela eta bide berean irisgarritasun planari dagokionez eta auzo mantendu plan eta diagnostikoa eta plangintza bera. Beraz, inportantea iruditzen zaigu diruz hornituta egotea eta jakin dugu datorren urteko aurrekontuetarako konpromisoa hartuta dagoela. Aldi berean, animatzen zaituztegu udal gobernuan zaudeten neurrian aurreko legealdian ere martxan zegoen aurrekontu partehartzaileen dinamikari eustea. Diputazioak bi urte eta gero orain martxan jarri du dinamika hori, pozten gara, bi urteko dinamika galdu den arren oraingo honetan jarri omen da eta ildo berean zuek ere bide horri eustea interesgarria iruditzen zaigu. Aipatu Tolosako Udalak bi urteetan zehar egin zuela hori eta azkenengoan zenbait proiektu onartuak zirela eta gobernu aldatetaren ondorioz gauzatzea ez zirela izan. Aipatu San Estebanen planteatzen zen eraberritze gunea edo briko gunea eta baita Emakumeen Etxea. Bozkatuena izan zen emakumeen aldetik baina proiektua ez zegoenez erabaki zen lantalde bat ateratzea eta horren baitan martxan jartzea hurrengo urtean gauzatzen hastea. Horregatik interesantea iruditzen zaigu diputazioak jorratzen hasi dela aurrekontu partehartze gaia eta Tolosako udalari animatu genioke puntu hori jorratzera.”*
- ... Alkatea: *“Hasieran egin duzu ñabardura ez dizut oso ondo ulertu baina ez nuke eztabaida batean sartu eta argituko didazu beste momentu egokiago batean. Uste dut Foru Aldundian aurrekontu partehartzaitetik egiten ari den lana orain eta aurreko legealdian izan den eta izan zen esperientziaren alderaketa bat egin beharko bagenu ñabardura baino gehiago egongo litzatekeela. Orain oso bideratuta dago emaitzei zuzendutako aurrekontua eta beste lanketa askoz sakonago bat eginda badago. Baina momentu honetan, hitzarmena da onartzen duguna. Bakarrik esan, momentu hau formalizazio hutsa dela berez, badagoelako Tolosako Udala jada espazio honen eraketan parte hartzen bere hasiera hasieratik.”*

**7. Ekintzaileen coworking-erako Oriaburu gune arautuko duen ordenantza**

**7. Ordenanza reguladora del espacio coworking Oriaburu para el emprendizaje.**

Partehartzeak:

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): *“Pozten gara aurreko legealdiaren amaieran Tolosaldea Garatzenekin batera hasi ginen hitz egiten. Uste dut proiektu onak guztiak babesten ditugula eta zentzu horretan jarraipena izatea pozgarria. Askotan planteatzen dugu gure ardura dela Garapen ekonomikoaren gaia. Bere garaian, 1992ko krisiaren baitan Garapen agentziak sortze zirenean eta udalak esan zuten krisia krisi, langabezi, langabezi gaia eutsi egin behar zaion gai bat zela. Interesantea iruditzen zaigu gai honi eustea izana eta coworking espazioa, gaztea eta ez hain gazteak espazioak edukitzea, beste batzuekin elkartu daitezten eta sortu horrelako sinergi berriak. Interesgarria iruditzen zaigu gainera Tolosaldea Garatzenek dauka esperientzia akumulatuaren bidez beraiek sartu izan honetan. Lehengoan, zu eta biok geundela Tolosan kuttuna den pertsonak esaten zigun nola ikusten zuen Tolosan erreferentzia galtzen ari zela eta olatu horri ezin geniola galtzen utzi. Eta horrelako inizatibak ulertzen dut laguntzen gaituztela olatu horretan ahalik eta gainean mantentzen. Jakinda garaiak ez direla onak. Ea lehenbailehen martxan jartzen den proiektu hau eta horregatik alde bozkatu dugu.”*

... Alkatea: *“Udal honetako gobernuko ildo estrategiko bat da eta strategi horren barruan kokatzen da coworking proiektu hau. Tolosaldea Garatzen garapen agentziarekin batera landutako proiektu bat da eta Lehiberrin dagoen ekintzaileen eskaintza osatuko du coworking esperientzi honek. Oriaburun dago kokatuta. Oriaburun dagoeneko obra batzuk egin dira, gehienbat eraikinaren hezetasuna gainditzeko eta teilatua ere egin da. Orain beste hainbat obra adjudikazio prozesuan dago, etxe barruko hainbat obra eta altzariak ere erosi egin beharko dira coworking proiektua aurrera eramateko. Oriaburu eraikinean Tolosan berrikuntza eta sormeneko zentro bat izatea nahiko genuke. Auto enpleguko proiektuak garatzeko, lankidetzarako gune bat. Oinarrietan azaltzen da helburua dela Tolosan kokatu nahi duten enpresa proiektuen eta hazkunderako duten enpresa sortu berrien sustatzaileei, enpresei eta profesionalei laguntzea. Merkatu irekiera salto egiteko aurrerapauso bat izan liteke. Lanbide Heziketarekin ere lanketa egiten ari gara. Gune bat eskaintzeaz gain tutoritzazioa ere aurreikusten da Tolosaldea Garatzenen bitartez. Egonaldia gutxienekoa izango sei hilabetekoa izango da eta gehienez, hiru urtekoa eta diktamenean azaltzen den bezala 50 euro ko pertsonako hilean kanona izango du. Ni ere poztan naiz aurreko legealdian coworking-a ibili bazenuten. Ni ez naiz jabetzen coworking-a lantzen hasi ote zen. Eta bide batez baita ere Emakumeen etxea aipatu duzunez: ez dago udaletxe honetan emakumeen etxearen inguruko lerro bat idatzita ere nahiz eta partehartze prozesuan azaldu. Azaltzeak ez du esan nahi lanketa egina dagoenik. Hori ñabardura bezala aipatu.”*

-----

Ekintzaileen coworking-erako Oriaburu gune arautzeko ordenantza aurkeztu da.

Horiek horrela, proposamena aztertu ondoren eta Ekonomia Sustatzeko batzordeak 2017ko ekainaren 21ean jaulkitako diktamena kontutan harturik, Udalbatzak, aho batez,

## ERABAKI DU

**Lehena:** Oriaburu ekintzaileen kolanerako gunerako Ordenantza proiektuari hasierako onarpena ematea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikulua araberera. Proiektua web orrian argitaratzea.

**Bigarrena:** Jendaurrean jartzea hogeita hamar egunez. Alegazioarik egin ezean behin betikotzat onartua ulertuko da.

**Hirugarrena:** Batzordeak finkatutako kanona Kontuhartzaileak egingo duen txostenari baldintzatuta lagatzea.

### 8. Itxitako ekitaldiko fakturen onarpena.

### 8. Aprobación de facturas del ejercicio cerrado.

Jarraian, Udaltzarak, aho batez, berea egin du Ogasun Batzordeak 2017ko ekainaren 21ean jaulkitako diktamena:

*“Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 61.artikulua araberera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, kontabilitate ekitaldia bat dator aurrekontu-ekitaldiarekin. Jarraian zehazten diren faktura hauek 2017ko ekitaldian jaso dira, baina 2016ko ekitaldiko faktura data dute.*”

HARRERA DATA	FTRA. DATA	PARTIDA	HORNITZAILEA	FTRA.ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA
2017-05-17	2016-10-24	0400.213.01.130.00	Euskoauto 2003 S.L.	T465483	Udaltzaingoko 8524-FJK ibilgailuaren konponketa	50,93
2017-05-10	2016-11-30	0500.221.99.231.00	San Cosme y San Damián S.L.	07-nov-2016	Uzturre zentroko 3A7 apartamentuko gasa eta ura 2016ko azaroaren 9tik abenduaren 16ra.	33,21
2017-05-10	2016-12-31	0500.221.99.231.00	San Cosme y San Damián S.L.	07-dic-2016	Uzturre zentroko 3A7 apartamentuko gasa eta ura 2016ko abenduaren 16tik 2017ko urtarrilaren 11ra.	23,28
<b>GUZTIRA</b>						<b>107,42</b>

*Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 46.artikuluak xedatutakoaren araberera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharrei dagokienez.*

*2016ko abenduaren 31an aipatutako obligazioak onartu gabe zeuden eta 2017ko aurrekontutik onartuko dira. Beraz, faktura hauek onartzeko eskumena Plenoari dagokio.*

*Hori guztia ikusirik, batzordeak aho batez diktaminatu du itxitako ekitaldiko fakturak Osoko Bilkurara bidaltzea, onar ditzan.”*

**9. Behin betiko izaeraz onartzea: Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren Aldaketa Puntuala, "28 Albiztur" esparruari dagokiona.**

**9. Aprobación definitiva del Proyecto de Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa, referida al ámbito "28 Albiztur".**

Partehartzeak:

- ... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): *"Pozten naiz behingoz onartzea. Bada denbora gaia hau mahai gainean dagoela. Aurreko legealdian Albisturrekin adostasuna lortzea kosta egin zen, mugak aldatu ziren. Tramitazio guztia martxan jarri zen, dagozkien txostenen ondoren, bejondeiola eta Pasabenek izango du aukera dagokion obrak egiteko. Azken finean, horregatik hasi zen prozedura hau eta badirudi aurtengo udan hasiko direla. Tramitazio guzti honek balio badu eskualdean aberastasuna indartzen, enplegua sortzen eta garapen ekonomikoa indartzeko esfortzu hauek bere fruitua izango dute. Beraz, pozten gara."*
- ... Alkatea: *"Pasaban enpresak hazkunderako daukan beharrei erantzuteko egiten da ordenazioko plan orokorraren aldaketa puntual hau. Tramitazioa orain dela urte batzuk hasi zen, gaia askotan tratatu dugu eta gaur onartzen dugu behin betikoz eraikingarritasuna hazitzeko aukera hori eta horrek bidea emango diola enplegua sustatzeko gure herrian. Aldaketa puntual honetan, Albistur eta Tolosako udaletxeaz gain, beste administrazio askok parte hartu dute: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailak, Ur Agentziak, Foru Aldundiko Bideazpiegitura sailak eta denboraz luzatzen joan da. Administrazioa arinagoa eta errazagoa izan behar du gure herriko enpresak duten beharrei erantzuteko. Ibaik esan duen bezala, behin behingoz bidea errazten utzi enpresak aurrera egin dezaten. "*

-----

Tolosako Udalbatzak, 2016ko urtarrilaren 26an, egindako osoko bilkuran, hasierako onespina ematen dio honako proiektu honi: Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren Aldaketa Puntuala, "28 Albiztur" esparruari dagokiona.

Dokumentua hasierako izaeraz onartu ondoren jendaurrean egon da hilabetez. Horretarako ondorengo argitarapenak egin dira:

- Udaletxeko iragarki taula.

El Pleno del Ayuntamiento de Tolosa, en sesión celebrada el día 26 de enero de 2016, acuerda aprobar inicialmente el Proyecto de Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa, referida al ámbito "28 Albiztur"

Tras su aprobación inicial, el documento se expone al público por el plazo de un mes, mediante la publicación del anuncio correspondiente en:

- Tablón de anuncios del Ayuntamiento.

- Udalaren web orria.
- GAO 2016-02-25.
- Berria 2016-02-23.
- Diario Vasco 2016-02-24.

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

Gainera, plana sektore eskumena duten herri-administrazio hauetara bidali da: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saila, URA Ur Agentzia, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentua.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak aldeko txostena jaulki du.

Ez Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak eta ez UR AGENTZIAK ez dute jaulki txosten sektorialik.

Hirigintza Teknikariak idatzi duen txostenaren arabera ixiltasun positiboa suertatzen da eta espedientearen tramitazioarekin jarraitu daite legeak ezarritako izapideak betez.

Tolosako Udal Planeamenduko Aholku Batzordeak aldeko iritzia eman dio proiektuari 2016ko ekainaren 23an egindako bilkuran.

Tolosako Udalbatzak, 2016ko ekainaren 28an, aho batez erabaten du proiektuari behin betiko onespina ematea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenturako Batzordearen aurrean aurkeztea dagokion txostena jaulki dezan eskatuz.

2016ko uztailaren 21ean aurkeztu zen espedientea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenturako Batzordearen aurrean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 91 artikulua aurreikusitako txostena eskatuz.

- Págin web del Ayuntamiento.
- B.O.G. 2016-02-25.
- Berria: 2016-02-23.
- Diario Vasco: 2016-02-24.

Durante dicho plazo no se presenta alegación alguna.

Además, se remite el expediente a las siguientes Administraciones con competencias sectoriales: Departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco, URA-UR AGENTZIA, y Departamento de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El Departamento de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa emite informe favorable.

Ni el Departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco ni la Agencia Vasca del Agua emiten informe.

Según informe emitido por el Técnico de Urbanismo se ha producido silencio positivo y puede proseguirse con la tramitación del expediente siguiendo los tramites legalmente establecidos.

El Consejo Asesor de Planeamiento de Tolosa informa favorablemente el Proyecto en sesión celebrada el 23 de junio de 2016.

El Pleno del Ayuntamiento de Tolosa, con fecha 28 de junio de 2016, aprueba provisionalmente el Proyecto y acuerda remitirlo a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, en solicitud de que emita el informe correspondiente.

El expediente se presenta ante la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco con fecha 21 de julio de 2016, en solicitud del informe preceptivo previsto en el art. 91 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduko Gipuzkoako Hirigintza Plangintzaren Atalak urriaren 5eko 7/2016 bilkuran aldeko irizpidea ematen du hainbat aldaketa lotesle aginduz.

Bestalde URA-Uraren Euskal Agentziak, 2016ko irailaren 29an aldeko txostena egiten du, baino hainbat baldintza ezarrita.

Baldintza hori guztiak betetzeko, PASABAN, SL enpresak Tstu Bateratua aurkeztu zuen Udalaren aurrean.

Kantauriko Konfederazio Hidraulikoak bere txosten osgarria idatzi due, aldeko txostena emanez.

Guzti horren aurrean, eta espedientean ageri diren txostenak ikusita eta Hirigintza eta Azpiegituretako Batzordeak 2017ko ekainaren 17an jaulkitako diktamena, aho batez, Udalbatzak, aho batez,

En la sesión 7/2016, celebrada el día 5 de octubre, la Sección de Planeamiento Urbanístico de Gipuzkoa de la Comisión de Ordenación del Territorio emite informe favorable imponiendo una serie de condiciones vinculantes.

Por su parte, URA-Agencia Vasca del Agua, emite informe favorable sujeta a una serie de condiciones.

Para dar cumplimiento a las condiciones impuestas, la empresa PASABAN, S.L. presenta ante el Ayuntamiento de Tolosa Texto Refundido.

La Confederación Hidrográfica del Cantábrico ha emitido documento complementario por el que informa favorablemente el Plan.

Ante todo lo expuesto, y vistos los informes que obran en el expediente, así como el dictamen de la Comisión de Infraestructuras y Urbanismo del 17 de junio de 2017, el Ayuntamiento pleno, por unanimidad,

## ERABAKI DU

**Lehena.**-Behin-betiko izaeraz onartzea Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aldaketa Puntuala, "28 Albiztur" esparruari dagokiona.

**Bigarrena.**-Behin betiko erabakia jakinaraztea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari.

**Hirugarrena.**-Plana bidaltzea Gipuzkoako Diputaziora, Hirigintza Planeamenduaren Administrazio erregistroan jasotzeko.

**Laugarrena.**-Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin betiko onespeneraren erabaki osoa eta Planaren hirigintza arauak, Plan Hirigintza Antolamenduko Administrazio Erregistroan gorde izanaren

## ACUERDA

**Primero.**-Aprobar, definitivamente, el Proyecto de Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa, referida al ámbito "28 Albiztur".

**Segundo.**-Comunicar el acuerdo de aprobación definitiva a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.

**Tercero.**-Remitir el Plan a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su depósito en el Registro Administrativo de Planeamiento Urbanístico.

**Cuarto.**-Publicar en el B.O. de Gipuzkoa el contenido íntegro del acuerdo de aprobación definitiva y las normas urbanísticas del Plan, con indicación de haberse producido el depósito del Plan en el Registro Administrativo de Planeamiento



aipamenarekin batera.

**Bosgarrena.**-Behin betiko onespeneren erabakia argitara ematea eguneroko prentsan.

**Seigarrena.**-Dokumentua eta espediente administratiboa bidaltzea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolaketa Batzordera.

**Zazpigarrena.**-erabakia interesdunei jakinaraztea.

Urbanístico.

**Quinto.**-Publicar el acuerdo de aprobación definitiva en la prensa diaria.

**Sexto.**-Remitir el documento y el expediente administrativo correspondiente a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.

**Septimo.**-Notificar esta resolución a las partes interesadas.

**10. Ekainaren 28a, Gay, Lesbiana, Transexual, Bisexual, Intersexual eta Queer-en eskubideen nazioarteko eguna dela eta, adierazpen instituzioanala.**

**10. Declaración institucional con motivo del 28 de junio día internacional por los derechos de Lesbianas, Gays, Transexuales, Bisexuales, Intersexuales y Queers.**

Partehartzeak:

- ... Cristian Fernandez Susin (PSE-EE): *“LGTBIQ kolektiboek jasaten duten diskriminazioaren aurka borrokatu behar dugu. Homofobia, lesbofobia eta transfobiaren aurkako jokaera hartuz, herritarren kontzientziazioa lortzeko denek berdinak garelako, denok pertsonak garelako.”*
- ... Onintza Lasa Arteaga (EHBildu): *“Guk ere bat egingo dugu adierazpen honekin eta guk ere gure proposamena bagenuen, gaizki ulertze batengatik ez da jaso. Nabardura batzuk dira bere jasotzen dituenak. Adierazpena irakurri da eta gaur egun ere heterosexuala ez izateagatik diskriminatuta dauden pertsonak badaude, ez bakarrik hori, erasotuak ere, izaten dira. Zoritzarrez, egun bat jarri behar zaie gogoan izateko horrelako egoerak bukatu egin behar dutela. Tolosako Udalak horrekin bat egingo du eta baita ere mozioan agertzen den bezala ontzat hartzen dira hainbat Legebiltzarretan sartuko diren ekimenak, legezko proposamenak, Nafarroan ere orain sartuko dira eta ea. Normalki gauzak egiten ari dira, hemen ezkontza zibilak posible dira. Beraz, formalki gauza askotan bezala pausoak ematen dira baina gero, kalean, beste gauza da eta eguneko errealitatea ezberdina da. Adierazi zenbat eraso izan diren Erkidegoan, Nafarroan, Estatuan. Gauza da, bat bakarra badago ere gaizki dagoela eta berdintasuna eta pertsonaren balioaren kontzeptua hankaz gora jartzen da. Gogoratu hau onartzen ari garen bitartean, autobus bat ibili dela bueltaka eta nire uste apalean ez zaio beharrezko erantzuna eman. Ez da buruan kabitzen nola atera daitezkeen horrelako mugimenduak, berez superatuta beharko luketen gauzak direlako. Beraz, lotsa gutxi eta errespetu gutxi adierazteaz gain, badirudi atzeraka goazela hainbat arlotan, behintzat badagoela redukto politikoki oso zuzenak izan daitezkeen diskurtsoz gain ez ditu onartzen logikoak izan daitezkeen sentimenduak. Bere orientazioaz aparte, koloreaz aparte berdinak direla. Bestalde, gure proposamenean adierazi nahi zen aipatu horregatik diskriminatuta izateaz gain, beste diskriminazio bikoitzak ere, pairatzen dituzten pertsonak*

*badaudela. Aipatzen da, migratu dutenak eta, guk sartu nahi genuke egoera ekonomikoan okerrean daudenak ere diskriminazio bikoitza ere pairatzen dutela. Gauza askotan bezala, homosexuala, transexuala izateaz diskriminazioaz gain, pobrea izatea ere pairatzen dute. Bat egiten dugu salaketarekin. Baita ere, Tolosan egin da espazio publiko batean adierazpena egitea, hor eskaileretan egin da. Jarrera badago, horrela jarraitu behar dugu, alerta jaitsi gabe. “*

- ... Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Berdintasuna batzordeburua: *“Argitzearren, adierazpena egin behar dugun askotan arazoak izaten ditugu zuekin. Ekainaren 13an, adierazpena proposamena igorri genizuen astebeteko epea utziz, ekarpenak egiteko. Ez zenuten ekarpenik egin. Ekainaren 21ean, batzordea baino egun bat lehenago gogorazi genuen adierazpena proposamenari inolako ekarpenik egin eta egin ezean, adierazpenak aurrera joko zuela. Adierazpena bera ere atxikita zeukelarik mezuan. Ez zenuten ekarpenik egin. Batzordean berdin esan genuen eta bertan ere ezer ez zenuten esan. Pasa den larunbatean, ekainak 24, San Joan egunean, idatzi zenion teknikariari e-maila esanez gure ekarpenak txertatuak izan. Niri ere, elkarrekin egon ginenean, ez zenidan ezer esan. Astelehenean teknikariak ikusi zuenean emaila eta jakinarazi bezain pronto telefonoz deitu nizun. Azaldu nizun ez genuela zugandik ezer jaso. Berriz, deitzekotan gelditu zinen eta ez dut deirik jaso. Gaur goizean jaso dugu zure bi lerroko ekarpena, ekonomiarri buruz ere ez zegoen ezer. Ez zegoen ezer eta erakutsiko dizut, berdez jarrita daukazu, bi lerro eta da pintaketa, igual eskailerak izan behar da eta kasualitateaz izan zen azken batzordean kide batek proposatua. Eta gainera jakinda proposamena hori aurrera eramanez dugula, Antonio Lekuona kaleko eskailerak pintatzea. Hala eta guztiz, oso ondo, hurrengorako ekarpenak egitera animatzen zaitut. “*
- ... Onintza Lasa Arteaga (EHBildu): *Harrituta nago, zurekin komunikazio arazo bat dagoela ikusten dut. Ez nizun deitu, zer idatzi nizun lasai egoteko, ñabardura kontua zela. Beraz, egin duzun hau da, ezerezetik arazo bat ateratzea. Adierazi dut natural, natural gaizki ulertze bat egon dela, ez diot garrantzirik eman. Alderantziz, esan dut ondo dagoela. Beraz, mesedez, daudenean arazoak egongo dira, baina ez daudenean edo gu behintzat ez ditugunean ikusten, ez da gure intentzioa azaroa egitea ez dagoenetik. Gainera, ados gaudela esan dut. Nire erantzun guztiak izan dira, lasai, ez da ezer gertatzen...Beraz, arazorik ez dauden lekuetan ez ditzagun sortu. Ez dakit nola adierazi: testu guztiak dira, lasai, ez dago arazorik, agian gaizki ikusi dut. Ez dago inongo arazorik, sortu nahi ez baldin bada, behintzat.“*
- ... Alkatea: *“Gauzak hitz egiten argitzen dira eta argituko ditugu. Adierazpen inguruan eta hori delako puntua eta hori da inportanteena. Adierazpenean jarduketa zehatz batzuk garatzeko erabakia hartzen da, informazioari dagokionez, konsientziari dagokionez, azken finean bizikidetzari dagokionez eta inportanteak dira. Bizitzako arlo guztietan errespetatu behar delako bakoitzaren eskubidea, bere izatea eta izaera aldarrikatzeko. Baita ere maitasunean, baita pertsona bakoitzak bere gorputza nortasuna bere askatasunez bizitzeko aldarrikapenean. Badago Tolosar bat, Madrilen bizi dena, eta tarteka-tarteka mezuak bidaltzen dizkit ikusten dituen gauzeekin eta oso interesgarria iruditu zitzaidan. Madrilen egin duen kanpaina egun konkretu honekin. Leloa iruditu zaidalako oso egoki eta deigarria dela Tolosara ekarri nahi dut. Beraz, adierazi nahi dut Tolosako pertsona orori eta Tolosa kanpotik datorrenari:“Maite maite duzula ere, Tolosak maite zaitu”.*

-----

Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga Berdintasun batzordeburuak, adierazpena irakurri du. Honela dio:

*“1969ko ekainaren 28ko data, Stonewall tabernako gertakariak izan ziren gaua, historikotzat hartzen du lesbiana, gay, transexual, intersexual eta queer-en askapen mugimenduak. Gau hartan, sexu- eta genero- desberdineko jendea isolaturik egoteari utzi eta sistemari aurre egiteko elkartu zen, beren eskaerak agerian jartzeko, ikustarazteko eta diskriminatzen zituen sistema baten bidegabekeriaren aurka borrokatzeko.*

*Hori dela eta, Tolosako Udalak gaitzesten du LGTBIQ kolektiboek jasaten duten diskriminazioa eta beste behin berresten du bere konpromisoa borrokatzeko sexu-joera eta genero-identitatea dela-eta dauden aurreiritzi eta diskriminazioaren aurka.*

*Data hartatik gaur egunera aldaketa handiak lortu dira legerian eta, era berean, lortu da oinarrizko eskubide zibil batzuen parekatzea, LGTBIQ kolektiboen eta Mugimendu Feministari esker. Horren haritik, maiatzean parlamentuko tramitera aurkeztu da lege-proposamen bat, sexu-joeragatik, genero-identitate edo espresioagatik eta sexu-ezaugarriengatik dagoen diskriminazioaren aurka eta lesbiana, gay, transexual, intersexual, transgenero eta queer-en gizarte berdintasunaren alde.*

*Lege honekin lortu nahi da ikusezintasuna eta onartze-eza gainditzea eta LGTBIQ kolektiboen eskubideak bermatzea.*

*Baina berriro ere nabarmendu behar da alderdi edo aspektu batzuek LGTBIQ kolektiboek bizitza konplikatuagoa eta zailagoa egiten dietela. Eta fokua jarri nahi dugu, batik bat, ondorengo hauetan: adin handikoak, migratu dutenak edo asiloa eskatzen dutenak, askatasunik ez dutenak, sexu-lanean dihardutenak, adin txikikoak eta nerabeak eta diskriminazio anitza jasaten duten biktimak, besteak beste, transexualak eta transgeneroak.*

*Gainera, ahalegindu behar dugu erreferente positiboak sortzen, sexu-dibertsitatea eta afektiboa askatasunez bizi ahal izateko, eta gizarte-kohesioa ziurtatzeko berdintasunaren eta errespetuaren baloreetan, eta, era berean, ez-diskriminazioaren kultura zabaltzeko kolektibo hauek jasaten dituzten eraso eta aurreiritzien aurrean.*

*Horregatik, Tolosako Udaleko udal taldeek Osoko Bilkura honetan erabakitzen dute ondorengo jarduketak garatzea udal esparruan:*

- *Bere jarrerarik irmoena erakustea beren sexualitateagatik edo genero-identitateagatik “normal”tzat jotzen den horretatik ateratzen diren haien aurkako aurreiritzi eta erasoen aurrean, eta aldarrikatzea jende guztiak eskubidea duela askatasun sexual eta afektiborako, bere identitatea definitzeko eta bere harremanak aukeratzeko.*
- *Homofobia, lesbofobia eta transfobiaren aurkako informazio eta sentsibilizazio kanpainak sustatzea, herritarren kontzientzia solidario berri bat sortzeko, eta, hala, jarrerak aldatu eta kolektibo hauen aurkako aurreiritzi eta mesfidantzak desagertu daitezen.*
- *Hezkidetza Proiektuaren bidez, Tolosako ikastetxeak hornitzea behar dituzten baliabideez, diskriminazio hau jasaten egon daitezkeen ikasleei adin goiztiarretik laguntzeko eta babesteko. Era berean, irakasleei laguntzea eta hezkuntza-baliabideak eta materialak ematea, behar bezala heltzeko aniztasun afektibo-sexual eta genero-identitatearekiko errespetuari.*

- *Ikusarazi eta zabaldu espazio fisiko eta sinboliko guztietan, erakundeen arteko jarduerarako eta koordinaziorako Udal Protokoloaren Mahaiaren bitartez, kolektibo honen aurka egiten diren indarkeria matxista mota guztiak. Era berean, Jarduketa Protokolo bat landu, sexu bereko bikotekideen arteko indarkeriatik sortzen diren arazoak ikusarazteko, arazo horiei heltzeko eta arreta hobetzeko.”*

Jarraian, bozketara jarri da eta Udalbatzak, aho batez, **onartu da**.

**11.Tolosako Batzokian egindako pintaketen harira Tolosako EAJ, EHBildu eta PSE-EE alderdien adierazpena.**

**11. Declaración de EAJ, EHBildu y PSE-EE en relación a la pintadas realizadas en el Batzoki de Tolosa.**

Partehartzeak:

- ... Cristian Fernandez Susin(PSE-EE): *“Ekintza eta jarrera hauek lekuz kanpo daude gure gizartean. Lehen esan dudan bezala gu bizikidetzat eta normalizazio politikoaren alde lanean jarraituko dugu eta hori da eman behar den erantzun hoberena. Horregatik ekintza honen aurrean alderdi sozialistatik desadostasun osoa eta arbuioa adierazi nahi dugu. “*
- ... ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): *“Bere garaian esan genuen pintaketa hauek lekuz kanpo zeudela. Batzokian egin izanari ez diogu bide ikusten eta esan bezala lekuz kanpo daude. Hala ere, mahai gainean jarri nahiko nuke presoan egoera zein den. Hau da, ez dugu ikusten pintaketak egin izana baina askotan konturatzen gara gai batetaz edo hona ekartzen dugu horrelako zerbait gertatzen denean. Zentzu horretan, giza eskubideen urraketa. Lehenago hemen Garde guraso elkartearen egoerataz hitz egin dugu eta orain batzokian egin behar ez ziren pintaketa batzuen inguruan eta horren atzean preso kolektibo haundi baten egoera dago eta giza-eskubideen urraketak daude. Dispersioa bere horretan giza eskubideen horren urraketa da. Bai familiei dagokionez, asteburu-astebururo Algeciras, Parisera, Nantesera. Joan behar izaten dutelako. Koste ekonomikoa, sufrimendua sentsu guztietakoa, inkomunikazioa eta nola ez presoek urratzen zaizkielako gertu egoteko eskubidea. Presoen eskubideak daude, espetxe barruetan eta hauek islamenduan egoten dira, ikastea ukatzen zaie, moduloetan banatuta egoten dira. Hiru laurdenak bete dituzten eta aske egon behar luketen horiek preso jarraitzen dute. Gaixoak dauden presoak kalean egon beharko luketenak preso jarraitzen dute eta dispersatuta jarraitzen dute. Manuren egoera ekarri nahiko nuke gogora, Tolosarra delako eta abenduan bere aldeko mozioa hemen onartuta izan zelako. Edozein momentuetan odol isuri bat eduki dezake eta hil daiteke. Eta egoera hori inork ez du nahi. Baina urraketa hauek ematen dira eta zenbaitzuek egoki eta ongi ikusten ez dugun arren horrelako erantzunak ematen dituzte.: egin behar ez dituzten pintaketa batzuekin . Iruditzen zaigu ere gizaeskubideen urraketa eta 3. eta 4. puntu jartzen duten bezala eta herritarrek sufritzen eta sufritzen ari diren gizaeskubideen urraketak desagertu arte lanean jarraituko dugula. Lehenago gazteekin bezala, hemen orain denek alde bozkatzea positiboa dela uste dut. Gizaeskubideen urraketa sufritzen ari dira tolosarrak diren zenbait herritarrak. Orduan guzti honen ardura, sufrimendu guzti horiekin amaitzea da ardura, Aranzadi egiten ari den lana, e.a. Etorkizuneko belaunaldia hezitzen, gu nola ez, mozioaren alde aterako gara, baina, iruditzen zaigu urraketa guzti horiei aurre egin behar diogula eta alde dugun neurrian aurrera egiteko eta irtenbidea emateko bitartekoak jartzea.*

- ... Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV): *“Azken aldian euskal herrian batzokiak erasoak jasotzen ari dira. Honen aurrean gure desadostasuna eta arbuioa adierazi nahi dugu. Mehatxu horiek bizikidetzaren eta norbanakoari zor zaion errespetua apurtzen dute. Alderdi guztiek horrekin bat egiten dugu gaurko adierazpenak dioanaren bidetik. Gizarteak ez du atzera bueltarik onartzen eta ez du onartzen biolentzia eta mehatxuaren erabilera. Ez dugu onartzen denari komunikabidei edo alderdiei erasotzea. Bizikidetzaren oinarriak dira errespetua eta aniztasuna onartzea. Eta bide hori sustatzea dagokigu herritarrok eskatzen duten alderdi guztiak. Horretan borrokatuko dugu. Euskal nazioa izanik, gureak diren eskubide sozial, politiko eta zubien arteko defentsa, ehun eta hogeit hamar urte baino gehiago darama eusko alderdi jeltzaleak eta bide horretatik jarraituko dugu bakarrik edo beste batzuekin. Garai berriak direla diogu, eta iruditzen zaigu gaurko argazki hau, hain zuzen, gaur udaletxean herriaren ordezkari politikoaren gehiagoarekin hiru alderdien arteko adostasuna horren adibide. Mozio honen onarpena da garai berriaren irudia eta horixe jarraituko dugun bidea. Mila esker.”*
- ... Alkatea: *“Ñabardura bat: presoen eskubidean aldarrikatzeko modu asko izan daiteke. Guk ez ditugu ere ikusten giza-eskubideen urraketak, baina, horrek ez du justifikatzen gertatutakoa. Eskubide urraketa bat salatzeko beste eskubide urraketa izatea, izan ere, pintaketa jasotzen dituenak erasotuta sentitzen dira. Ez bakarrik alderdi politikoak, ibai adierazten zuen bezala. Herri honetan eta ez orain gutxi bai komunikabideak, banketxeak paretak eta nolabait seinatuak sentitzen denak erasotuta sentitzen delako inportanteena da, lehen ere onartu dugun testu horretan egin dugun bezala, horiek ez daudela ondo esatea, hori ez dela bidea. Egoerak giza-eskubideen urraketan denuntziatzeko eta salatzeko badaudela bideak eta hori ez dela bide egokiena.”*
- ... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): *“Ez dakit gaizki ulertu duzuen. Ez dut justifikatzen eta gainera azpimarratu nahiko genuke hori iruditu nahi izan baldin badu. Inondik inora. Baina aldi berean, esaten dut gaizki irudituta ere badaudela kausa politiko eta gatazka politiko baten ondorioz sortutako ondorio latzak aurre egin behar dizkiogunak. Gaizki iruditu zait pintadak, noski baietz, baina presoen egoera mahai gainean jarri behar da. Pintada horiek presoen egoeraren inguruan hitz egiten zuten. Presoen gaiari eutsi egin behar zaio. Baina ez dadila nahastu. Hemen baten batek nahastu nahiko zuen. Ez dadila nahastu. Argi eta garbi EHBildutik lekuz kanpo ikusten ditu pintada horiek. Baina ez ditzagun bizkar eman ere herri honek badauzkala oraindik kudeatu beharreko arazoak. Eta nagusia presoen eta errefuxiatuen gaia. Askok eta askori ikuitzen dielako. Tolosan kasua, Manuren kasua, gaixo egon da eta dagoen egoera ikusita mahai honen bueltan, iruditzen zait eusten jarraitu behar diegula, egoera larrian dagoelako. Berritot, inondik inora. Inork ez dezala pentsa justifikatzen ari naizenik.”*

-----

Idazkariak adierazpena irakurri du. Honela dio:

*“Tolosako Batzokian egindako pintaketan harira Tolosako EAJ, EHBildu eta PSE-EE alderdiek honakoa adierazi nahi dugu:*

1. *Ekintza hauen aurrean gure desadostasuna eta arbuioa adierazi nahi dugu, horrelako jarrera eta ekintzak gure herriaren eraikuntzan oztopo direlako.*
2. *Mehatxu, pintaketa eta mota honetako jarrerak baztertzeko ditugu; gure jardun eta estrategietatik kanpo kokatzen diren ekintzak dira eta lekuz kanpo geratzen dira.*
3. *Kasu honetan bezala, Tolosan bizikidetzaren eta normalizazio politikoaren alde lanean jarraituko dugu, herritarrek sufritu dituzten eta sufritzen ari diren eskubide urraketak erabat desagertu arte.*
4. *Denon parte hartzea eta elkarrekin pausoak ematea beharrezkoa da eta bide horretan elkarrekin etorkizun baketsu baten alde lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu.”*

Bozketara jarri ondoren, Udaltzako, aho batez, onartu du adierazpena instituzionala.

## **12. Galderak eta eskaerak.**

## **12. Ruegos y preguntas.**

Nuria Carbonell Miranda, Kultura, Festa eta Gazteria batzordeburuak hitza hartu du honako hau esateko: *“San Joan jaiak orain dela bi egun bukatu dira. Gure ustez, oso jai politak izan dira, oso ondo joanda dena, partehartzea izugarria izanda. Udal langileak egin dute lana, hainbat pertsona anonimok egin duten lan. Hemendik tolosarrei zoriondu eta eskerrak eman nahi dizkiet.”*

Besterik gabe, gaueko bederatzia eta erdietan bilera bukatutzat eman da, eta guztia, nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

Sin más asuntos que tratar, siendo las nueve y media de la noche, se da por finalizada la sesión, de todo lo cual, yo, la Secretaria, certifico.

ALKATEA

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA